



Eskolarteko XX. Mendi Lehiaketan 500 gazte inguru igo ziren Urkizura

TOLOSA ▶ Alpino Uzturre elkarteak antolatu zuen herenegun ibilaldi neurtua, Aldundiarekin

HELBURUA ▶ Gazteen artean mendizaletasuna bultzatu nahi du ekimenak ▶ 2



Ikasle, irakasle, begirale eta antolatzaileek egin zuten ibilbidea, eguraldia lagun. J. SAIZAR



A. IMAZ

XVIII. eskolaren astearren hasieran, eskulan tailerra

LIZARTZA ▶ Ekitaldi ugari antolatu dituzte Lizartzako eskolan aste guztian; atzo eskulan tailerra eta puntu txapelketa egin zuten ▶ 5

AMEZKETA ▶

Euskararen aldeko egitarau oparoa antolatu dute

Bilera bihar egingo du batzordeak, 20:00etan balioanitzeko gelan ▶ 5

TOLOSA ▶

Lander Gil Espainiako txapelduna izan da

60 metro hesietan errekorra hautsi du ▶ 3

TEDDY MARTINEZ ▶ PULTSULARIA

«Epe luzera ikusiko da entrenamenduetan eginikoaren emaitza»

4. postua lortu du Danena-Olaederra taldekoak, EBko Txapelketan ▶ 4

MENDIA ▶

La bostehun haur Eskolarteko XX. Mendi Lehiaketan

Mendizaletasuna bultzatzea izan zuen helburu Alpino Uzturre elkarteak joan den igandean antolatutako ibilaldiak

ENERITZ MAIZ

Alpino Uzturre elkarteak Gipuzkoako Mendizale Federazioarekin eta Foru Aldundiarekin batera antolatutako Eskolarteko XX. Mendi Lehiaketaren barruan parte hartu zuen. Tolosan bezala, Oiartzunen, Azpeitian, Antzuolan eta Ataunen ere egin zuten.

Herenegun San Esteban auzotik Urkizura egindako ibilaldi neurtuan, zortzi eta hamalau urte arteko 489 haur, hainbat irakasle, begirale eta guraso izan ziren partaide. Tolosako ibilaldian Donostia, Hernani, Usurbil, Ibarra, Alegia eta Tolosako ikastetxeetako haurrek hartu zuten parte.

Hiru, lau edo bost lagunekin taldeetan banatuta egin zuten ibilaldia. Aldez aurretik izena emana zuten guztiek, goizeko bederatzia aldera abiatu ziren San Esteban auzotik. Lizardiren oroitarririk pasa ondoren Urkizura igo ziren, eta bertan, Opil okindegiak eta Insaluz Urak emandako hamaiketakoak



Urkizutik bueltan ibili ziren 489 haur. JOXEMI SAIZAR

izan zuten. Behin tripa beteta, hiru ordu eta erdiko ibilbidea aukeratu zutenek Olamuñoko antenaraino igo behar izan zuten. Aldiz, bi ordu eta erdiko ibilbidea aukeratu zutenek behar bidea hartu zuten. Mendizale guztiak Zelaitxiki, Malaka eta Txoritokieta base-rietatik jaitsi ziren eguraldi ederra lagun izan zutelarik goiz osoan zehar. Behin San Esteban auzora bueltatuta, lortutako diploma jasotzea besterik ez zuten izan.

Diploma jaso ahal izateko

Behin ibilbidea bukatuta, diploma jaso ahal izateko antolatzaileek aldez aurretik ezarritako arau guztiak betetzea beharrezkoa izan zen. Ibilbidean zehar zeuden kontrol guztietatik, taldekide guztiek batera pasa behar izan zuten kontrol guneetatik. Lasterketetan ez bezala, partaideek lortu beharrezkoa erregularitasuna izan zen eta ez bizkortasuna. Antolatzaileek ezarritako denbora baino lehen iritsitako taldeak sailkapenetik kanpora geratu ziren.

Antolaketan Alpino Uzturre elkarteak 25 lagun aritu ziren: bezperan bidea seinalizatuz eta garbituz (asteen zehar eroritako enbor eta adar ugari kendu behar izan zituzten), egunean zehar bidegurutzeetan eta kontroletan egonez, garbiketa lanetan...).

Antolatzaileek Opil okidengia, Insaluz Ura, DYA eta Udaltzaingoaren laguntza eskertu nahi izan dute.

XAKEA ▶

Grosekoen aurka irabazi du Tolosa-Ibarra taldeak

ERREDAKZIOA

Larunbatean Gipuzkoako Ligako beste txanda bat jokatu zuten. Bigarren mailarako igoera fasean Tolosa-Ibarra taldea Donostian izan zen Groseko bigarren taldearen aurka jokatzera joan da. 1-3 irabazi zuten, Mendia, Mujika eta Intxaurrendoren puntuetuei esker.

Lehenak 10 jokaldi aski izan zituen partida erabakita uzteko. Bere aurkariak irekiera gaizki jokatu zuen eta pieza bat galdu zuen segituan. Mujikaren partida berdinduagoa izan zen. Baina bere aurkariak huts egite harriarri bat egin eta Ibarra-koak sekulako eraso antolatua ahal izan zuten. Aurkariak ezin izan zion eraso horri aurre egin eta amore eman behar izan zuten.

Intxaurrendok sasoi puntu onean jarraitzen duela erakutsi zuen. Pieza sakrifikatu eta bikain irabazi zuen. Bera da orain taldean puntu gehien lortu dituen jokalaria.

Emaiza hauei esker taldea 4. da eta lehen bi postuak bakarrik igo arren oraindik aukera dute zer bait lortzeko, Fortunaren aurka baitute, postuko bigarrenaren aurka, hain zuzen ere.

FUTBOLA ▶

Lau garaipen, lau porrot eta berdinketa bat izan dituzte

ERREDAKZIOA

Lau garaipen, lau porrot eta berdinketa bat izan dituzte Tolosa CF-koek asteburu honetan. 3. mailakoek 2-1 garaitu zuten Laudionen aurka, eta lurraldekoek gol bat egin zuten; irabazteko nahikoa.

Ohorezko mailan dauden jubentilek 1-0 galdu zuten, eta 1. mailakoek ere 5-1 galdu. Kadeteen mailakoek 5-1 irabazi zuten ohorezkoek, eta 0-1 galdu, beriz, 1. mailakoek. Infantilek berdinketa lortu zuten Ordiziaren aurka.

Neskek galdu egin zuten Bergararen aurka, eta alebiknek, beriz, 5-3 irabazi.

ARETO FUTBOLA ▶

Azken aldiko emaitza txarren ondoren, bigarrenaz hiru puntuak poltsikoratu dituzte Laskorainekoek

2-3 irabazi zuten tolosarrek, Orioren aurka larunbatean jokaturako norgehiagokan

E.MAIZ

Ikastolakoek urtarrila eta otsailen lorturiko emaitza txarrei amaiera ematea lortu dute, Orion 2-3 irabazi eta gero. Larunbatean, sufritu eta lan asko egin behar izan zuten garaipena eskuratzeko.

Joan den astean Altamiraren aurka irabazi ondoren, bigarren garaipena erreskan lortu du taldeak. Azkenean, arnas pixka bat hartzea lortu duten arren, gogotik sufritu eta izerditu behar izan zuten tolosarrek hiru puntuarekin etxera etorri ahal izateko.

Kostaldeko arerioa, Nazional

B mailan gol gutxien jasotako taldea izanik, Laskoraindarren eraso gehienak ezereztatuko zituen «germaniar egituradun armiarma sare bat eraikitzen zuten kantxa barruan eta kontraerasoan Gonzalez atezain gazteak defendaturiko atea mehatxatu zuten norgehiagokan osoan zehar».

Dena den, tolosarrek ederki asko zekiten zer nolako jokoa egin behar zuten larunbateko partidua irabazi ahal izateko. Areta futbolaren «sekreturik izkutuena ere hausnartzen dituen Egizabal entrenatzailearen agindupean», seriotasunez jorratutako hainbat minu-

turen fruitu izan zen behartu zuten 6. falta eta markagailuan aurre hartu zuten Telletxeak sarturiko hamar metrotako jaurtiketa baten bitartez.

Gutxi irauin zuten, hala ere, horitxoek pozak, izan ere atsedaldia iristear zegoenean, oriotarren berdinketaren gola etorri zen.

Bigarren zatian, bi taldeen jarrerak ez zuten inongo aldatarik izan, etxeok desorekatu zuten berdinketa kontraraso baten ondorioz 2-1 ekoa lortuz. Kostakoen emaitzari eusteko asmo «arriskutsuak» ez zuten behar bezelako fruituren eman eta amaierarako 2 mi-

nuturen faltan, Saldiasek berdinketaren gola sartu zuen jokaldi korapilatsu eta erabakigarri batean. Izan ere, gol honen ostean, epaileek oriotar bat kanporatu zuten eta bukatzeko 10 segundo besterik gelditzen ez zirenean, Telletxeak horitxoek eromena ekarriko zuten garaipenaren gola egin zuten.

Taldeak, Iñaki Egizabal entrenatzailea azpimarratu nahi du azken bi asteetako arrakastaren zutarri moduan.

Harrobiari dagokionez, Alonsoren mutilek 5-3 galdu zuten Anoeta lider sendoaren aurka.

GIZARTEA ▶

Ingelesa praktikatzeko talde berri bat osatu dute

Etzi egingo dute saio bat, eta herritarrei bertan parte hartzeko deia luzatzen diete

E. EZEIZA

Ingelesa praktikatzeko talde bat osatu dute Tolosan eta etzi egingo dute saioetako bat. Larraularen egin zuten bezala, Tolosan ere antzeko zer-bait egiteko asmoa agertu dute herritar batzuk, eta hauek ere 15ean behin elkaturko dira, «duela urte asko ikasitako hizkuntza, berriro ere erabiltzeko». Bertan parte hartzeko interesa dutenek 943 246116 edo 652 720462 zenbakietara deituta egin ahal izango dute.

Oraingoz hiru kide biltzen dira lokal batean, denak ere, ingeleseko irakasle izan direnak, baina aspaldian gutxi erabiltzen dutenak. Bertako kideen esanetan, «informazioaren elkartrukea da helburu, bakoitzaren ingelesa aberastuz». Honetarako, ingelesezko aldizkarietako artikulua hartu eta aztertzen dituzte. Dena den, jende berria animatzea nahi dute, eta hauen «ekarpen eta proposamenak gogo handiz hartuko dituztela» adierazi dute partaideek. «Honela, denborak eta esperientziak esangor digu zer aldatu behar dugun eta zer ez» gaineratu zuten.

Egitasmo honek Bizkaian du sorrera, bertako zenbait herritan, jendea biltzen baita euskaraz hitz egiteko. Larraularen duela urte eta erdi hasi ziren berdina egiten, baina kasu honetan, ingelesarekin. Saio hauen xedeetako bat, «jendea ingelesez identifikatzea da». Hau da, eguneroko ohiko bizitzan (ia ezinezkoa denez ingelesez hitz egitea, inguruko jendea euskararekin eta gaztelaniarekin lotzen baitugu normalean, mintza praktika hauen ondoren, taldeko pertsonak ingelesarekin lotzea lortu nahi dugu). Eta kalean topatuz gero ere, berarekin ingelesez hitz egiten hasatea.

Tolosako taldekoak Larraulekoarekin harremanetan daude, hori dela eta, bietan ere hamabostean behin egiten direnez, asteak tartekatuz egingo dituzte.

GIZARTEA ▶



Emakumeen eskubideak horma batean

E. Ezeiza ▶ Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira murrara egin dute Bilgune Feministakoeek. Euskal Herriko zenbait herritan, eskubide bat ardatz hartuta ekimen ezberdinak eraman dituzte aurrera. Tolosaren kasuan, «eraila ez izateko eskubidea» izan dute oinarri, eta gai honen inguruko murrara marraztu dute Tolosako zezen plazako horman. Datoren asteetan herri guztietan egindako ekimenen argazkiak bilduko dituzte, eta denak bateratuz muntaia bat osatuko dute. HITZA

KIROLAK ▶

Lander Gil Espainiako txapelkun izan da, 60 metro hesietan

Valentzian jokatu dute kadete mailako Pista Estaliko Txapelketa, eta eskualdeko lau atletek hartu dute parte

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan, Valentzian kadete mailako Espainiako pista estaliko atletismo Txapelketa jokatu zen, eta bertan Tolosa CFeko lau atletek hartu zuten parte. Txapelketetako izarra Lander Gil hernialdearra izan zen, 60 hesietako proban txapelkun izatea lortu baitzuen eta era berean, Espainiako errekorra hautsi.

Lehiaketara iritsi aurretik Gilek 8:42eko marka zuen, hau da, errekorretik ehuneko batera zen. Beraz, bazirudien txapelketan hau lortzeko ahalmena zuela. Horrelaxe izan zen, azkenean 8:36ko markarekin 5 ehuneko jan zizkion aurreko markari. Gilen emaitza «ezin hobea izan da», beraz, izan ere, azken hilabetea lesio batetik erreuperatzen igaro du. Emaitza honekin nazioarteko konpetizio baterako aurreselektzioan sartu da.

Hesietan ez ezik, 60 metro lauetan ere parte hartu zuen Gilek, eta hemen 4. postua lortu zuen 7:46ko markarekin. Emaitza honen ondoren, estatuko atleta azkarrenen pare jarri zen.

Iker Epelde korrikalari Tolosarra ere txapelketan izan zen. 300 metroko lasterketan parte hartu zuen. Oso ondo lehiatu bazen ere, aurretik zuen marka asko hobetuaz, ez zen finalerako sailkatu. Kurba batean bere kaleko marra zapaldu zuen, eta epaileek bertan behera utzi zuten tolosarraren helburua.

Tolosa CF taldeak beste bi kirolari ere eraman zituen txapelketara. Batetik Igor Legarda, hau altuera jauzian lehiatu zen eta 1:70 markarekin 6. postua lortu zuen. Bestetik, Iker Candok 60 metro lauetako proban hartu zuen parte eta erdi finalerako erraz pasa ondoren, 7:52ko markarekin finalera pasatzeko ehuneko bakarrera gelditu zen.

Beste proba batzuk

Aurreko astebukaeran junior mailako Espainiako txapelketa jokatu zen Zaragozan. Bertan Tolosa CFko Oihane Vazquezek 1.500 metroko lasterketan parte hartu zuen eta nahiz eta finalerako txartela justu-justu lortu, hemen, oso lasterketa ona egin zuen eta 5. izan zen, aurtengo bere marka hobetuz.

Bestalde, krosari dagokionez, Euskadiko Txapelketetan lorturiko emaitzen ondorioz, jubeni mailan Eneko Garin (2.) eta Eneko Tapia (5.) euskal selekzioa ordezkatzeko ariko dira Espainiako Gazte mailako Txapelketan. Kadete mailan, Tamara Lozano (3.) eta Unai Arroyo (2.) izango direlarik ere.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Korrika: parte hartuko al duzu aurten? Euskarari zertan laguntzen dio ekimen honek? Sartu gure webgunean eta eman honen inguruko zure iritzia, eta dituzun asmoak esan.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira.

LANA
Sukaldaria. Asteburuetarako

sukaldea behar da. Telefono zenbakia: 615 78 90 06.
Garbitzailea. Sukalde, jangela eta eskoletarako garbiketara. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.
Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.

HEZKUNTZA ▶

Adimen emozionala hizpide, bihar

Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuan, adimen emozionalaren inguruko hitzaldia izango da bihar, 10:00etatik 12:00etara bitartean. Cluster del conocimiento eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta dute jardunaldia, «trebetasun honen garapenak asko lagundera baitie probatu dutenei».

GIZARTEA ▶

Baketik-en proiektuaren aurkezpena

Jonan Fernandez Baketik Zentroko zuzendariak *Bider Mila* proiektuaren aurkezpen hitzaldia eskainiko du bihar, 20:00etan Tolosako Kultur Etxean. Bertan, Arantzazun eskainiko diren ikastaroen buruz informatuko du.

HEZKUNTZA ▶

Modragon Unibertsitatearen autobusa hemen

Mondragon Unibertsitateak autobus bat antolatuta Euskal Herria zeharkatzeko eta beraien lanaren berri emateko. Hala, gaur iritsiko da Tolosara. Goizean 10:00etatik 14:00etara egongo da San Blas auzoan, eta arratsaldean, 16:00etatik aurrera Foruen plazan izango da.

ERLIJIOA ▶

Jesukristori buruzko hitzaldiak

Pastoral barrutiak antolatuta, Jesukristo Jaungoikoaren inguruko hitzaldiak izango dira gaur eta bihar 20:00etan, Santa Maria parrokian, Jose Antonio Pagola izango da.

TEDDY MARTINEZ ▶ PULTSULARIA

«Entrenamenduetan egindakoak epe luzeragora erakutsiko dute emaitza»

Laugarren postua lortu berri du Teddy Martinezek Europako Basatuneko 23 Urte Azpiko Txapelketan

IMANOL GARCIA

Danena-Olaederra taldeko Teddy Martinez pultsulariak laugarren postua lortu berri du A Coruñan jokatu den 23 urte azpiko Europako Batasuneko Txapelketan. Bizilekua Zizurkil-en badu ere, egun Madrilgo Blume Errendimendu Altuko Zentroan dago. Aurten 20 urte beteko ditu eta, beraz, junior mailan egingo diren Munduko eta Europako Txapelketetara joatea du helburu.

Gustura emaitzarekin?

Nahiko gustura nago. Hilabete eta bi aste daramatzat Blumen eta hain denbora gutxi egon arren emaitza ona lortu dut txapelketan.

Espero zenuen postu horretan emaitza?

Lehenengo hirurak askoz ar-
rerrago bukatu zuten. Ni laugar-
ren eta bosgarren postuen ar-
teko lehian nengoen eta beraz
gustura lortutakoarekin. Txape-
lketara joan aurretik ematen
den zerrendan seigarren postu-
tan nengoen.

Lehenengo hiru postuak urrutitatu zuden, beraz.

Zaharragoak ziren eta denbora
gehiago daramate maila altuan
entrenatzen. Nik bi hilabete ere
ez daramatzat Madril. Alba-
niako torneoaz gain, maila ho-
rretako lehen txapelketa izan
da. Esperientzia gehiago zuten
pultsulariak zeuden.

Arrankadan 130 kilo eta bi denboratan 170 kilo altxatu dituzu. Zure marka onenak lortu dituzu eta bi denboratan EAEko errekorra hobetu duzu junior mailan.



HITZA

Bai, dagoeneko markak hobetzen ari naiz Madrilen denbora gutxi eman arren. Espainiako hautatzailearekin entrenatzen dut eta saioak gogorak izaten dira. Berak esan dit markak ondo daudela. Entrenamenduetan egindako lanek epe luzeragora erakutsiko dute beraien emaitza.

Ez du erraza izan behar gero eta marka hobekoak altxatu behar izatea.

Egunero egin behar dituzun ariketak gaintitu behar dira. Hor aurrera egiten baduzu eta teknika zuzentzen joanez gero, gero etortzen dira emaitzak.

Blume Zentroan noiz arte izango zara?

Orain kontzentrazio modura nago. Gero ikasturtea hasten denean, irailan, bekadun bezala postu bat izango nuke. Hortik aurrera ikusi beharko zenbat denbora egin dezakadan bertan.

Euskadiko Txapelketa jokatuko da Villabonan hilaren 24ean. Parte hartuko duzu?

Nire entrenatzaileak baimena eman behar dit, baina seguruenek bertan izango naiz.

Zen txapelketa dituzu helburu aurten?

Ekaina-uztaila inguruan junior mailako Munduko Txapelketa egongo da eta irailan Europako Txapelketa maila berdinean. Bietan parte hartu nahi dut.

ZIZURKIL ▶ MUSIKA



Speak Low taldearen emanaldiaren une bat. HITZA

«Arrakastatsua» izan da blues musikaren jaialdia

Jende ugari joan zen Aurrera, Egarrri eta Atxulondo tabernetako kontzertuetara

I. GARCIA

Zizurkilgo Blues Musikaren V. Jaialdia «arrakastatsua» izan da, antolatzaileen hitzetan. Parte hartu zuten lau taldeek jende ugari erakarri zuten Zizurkilgo Aurrera, Egarrri eta Atxulondo tabernetara. Aurrera tabernako Ion Ander Esnaolak azaldu duenez, «oso maila ona izan dute taldeek, blues musikaren zaleek esan dutenez».

Jende asko joan zen kontzertuetara. Esnaolak dioenez, «herrikoak eta kanpotar asko etorri ziren. Oso giro ona izan zen». Badirudi gero eta ezagunagoa egiten ari dela

jaialdia eta kanpotik etorritako jende kopuruak horrela erakusten du. Musika taldekoak ere gustura daude jaialdiarekin: «Madriletik-eta etorrita, harrিতa daude herri txiki batean hiru tabernatan horrelako jaialdi bat antolatzeaz», dio Esnaolak. «Euskal Herrian horrelako beste jaialdirik ez dela egiten esaten dute. Eskerrak ematen dituzte hona etortzeagatik eta ea beste batean ere gonbidatzen ditugun esaten digute».

Jaialdi horrek bezalako ekitaldiek Zizurkil «dinamizatu» egiten dutela dio Esnaolak. «Urtetik urtera jende gehiago etortzen da».

ANOETA ▶

Aerobik eta batuka saioa gaur kiroldegian

Kultur Astearen baitan hilaren 6rako programatuta zegoen aerobik eta batuka saioa bertan behera gelditu zen azken momentuan. Haurtzako zuzendutako saio hori gaur egingo da 18:15etik 19:30era kiroldegian.

ALKIZA ▶

Photoshop ikastaroa egiteko aukera

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Photoshop ikastaroa antolatu du Alkizan. Hilaren 20ean hasiko litzateke eta ordutegia 20:00etatik 22:00etara izango da. Herriko ikastetxean egingo da ikastaroa eta 20 euroko kostua izango du.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

AMEZKETA ▶ KORRIKA

Euskararen aldeko egitaraua zehazteko bilera bihar izango da

Duela bi urteko Korrika Txikiko bideo emanaldia, edota Feli Etxeberriaren hitzaldi berezia dira aurtengo deigarrienak



Duela bi urte ere Korrika Txikia egin zuten Amezketan. NOELIA LATABURU

ERREDAKZIOA

Amezketatik bertatik Korrika 15 pasako ez bada ere, herritarak asmo eta ekintza bereziak erakusten ari dira honen inguruan; hala, hurrengo egunetarako hainbat ekitaldi prestatu nahi dituzte.

Duela bi aste egindako bilerrari jarraipena eman nahian, biharko Korrika batzordearen bigarren bilerarako deialdia egin dute; 20:00etan izango da, balioanitzeko gelan.

Bilera honetan Korrikaren alde lorturiko dirua bilduko dute, enpresatan, nahiz saltokietan eskatutakoa, hain zuzen. Bileran jorratuko duten hurrengo gauza, antolatuta nahi dituzten ekintzak zehaztea izango da: igandeko hamaiketako izango da lehena. Gero, hilaren 23rako, hain zuzen,

beste bi ekintzak: Korrika Txikia eta hitzaldia.

Orain dela bi aste bildu zen aurreneko Amezketako Korrika batzordea. Orduantxe sortu zen talde hau: bi orduko bilera egin zuten, eta baita jendetsua ere, 20 lagun inguru bildu baitzen. Hala ere, eta beti bezala, Korrikari eta euskarari laguntza eman nahi dion jendea baldin bada, biharko bilerarako gonbitea zabaldu dute amezketarrek, beste behin.

Egitarau berezia

Igandean Korrika 14an egindako Korrika Txikiko bideo emanaldia izango da. Segidan, 12:30ean, hamaiketako antolatuta dute. Korrikaren aldeko dirua biltzeko izango da. Txartelak egunean bertan erosi ahal izango dira. 80-100 lagunentzako jana izango da; hortaz, «12:00ak aldera han azaltzearekin nahikoa izango da».

EGITARAU ▶

BIHAR

20:00. Korrika batzordearen bigarren bilera, balioanitzeko gelan.

MARTXOAK 18, IGANDEA

12:00. Korrika 14ko bideo emanaldia, balioanitzeko gelan.

12:30. Hamaiketako frontoi zaharrean. Honetan jasotako dirua Korrika 15ari laguntzeko izango da. Izena emateko egunean bertan, balioanitzeko gelan.

MARTXOAK 23, OSTIRALA

Arratsaldean. Korrika Txikia, Amezketako Zumadi eskolak antolatuta.

20:00. Feli Etxeberria amezketararen hitzaldia balio anitzeko gelan:

Emakumea eta euskararen transmisioa.

tzako jana izango da; hortaz, «12:00ak aldera han azaltzearekin nahikoa izango da».

Korrikako arropa ere jarri nahi dute salgai Amezketan; «Ez dakigu ekarri izango dugun, baina saiaturako gara».

Feli Etxeberria EHUko Filo-sofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da, eta sortzez, Amezketako, Jauregi Txiki baserrikoa. Hitzaldi interesgarria egingo du: *Emakumea eta euskararen transmisioa*, hain zuzen. Hizkuntz jabe-kuntza, hizkuntz pedagogia, elebitasuna dira aztertu dituen gaietako batzuk.

LIZARTZA ▶ HEZKUNTZA



Eskulan tailerra eta punttu txapelketa, lehen egunean

Asier Imaz ▶ Atzo hasi zen Lizartzako XVIII. eskolaren astea. Arratsaldez eskulan tailerrak egin zituzten umeei. 19:00etan punttu txapelketa egin zen herriko frontoian, ikasle batek eta heldu batek osatutako bikoteekin. Gaur berriz, bizikleta martxa egingo dute Nafarroako mugaraino eta txikiak herrian zehar ibiliko dira bizikletaz. Ondoren, afari merienda izango da gerturatzen den guztientzat. A. IMAZ

ALEGIA ▶ KIROLAK

Bi partida zail galdu dituzte Intxurrekoek

Lurraldekakoek eta jubenilek ezin izan zuten

NEREA URBIZU

Intxurrekoek ez dute aurreko asteburuetan izandako zortetik izan, jubenilek eta lurraldekakoek galdu egin baituzten. Partida zailak ziren, sailkapen orokorreko lehena eta bigarrena baitziren arerioak.

Neskek berriro ere irabazi egin zuten, Idiazabal Bren aurka, 3-0 emaitzarekin. Kadeteek bi gol sartu zituzten

Orikoen sareetan. Hurrengo asteburuan Elgoibarren kontra jokatu dute kanpoan, jubenilek bezala. Hauek Usurbilera joango dira.

Neskek Alegian jokatu dute Orixe Tolosaren aurka, eta lurraldekoek, berriz, etxean, Mariñoren kontra. Gogoratu behar da, azken hauek partida bat gutxiago jokatu dutela, eta hala ere, sailkapen nagusian bigarren daudela.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZA jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

urteurrenak ▶

Joakin Balerdi Erauskin
II. urteurrena

Aita, aitona eta anaia
beti gogoan

Etxekoak

TOLOSA, 2007ko marxoaren 13a

LEABURU ▶

2006. urteko
liburutegiko
balantzea

Urriari ireki zutela kontutan harturik, «goiz da» balorazioak egiteko. Egun 23 bazkide ditu eta 116 ale mailegu egon dira. Aurtengo asmoen baitan, zenbakietan gora egitea dago. Ipuin kontalariak ere lortu nahi dituzte ekitaldiatarako. Azkenik, astean bi egun ez irekitzen dela aipatu: astelehena eta asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara.

IBARRA ▶

Ibarra FSk 4-6
irabazi zion
Ultzamari

Nafarroko Larrintzarren jokaturako partidari, 4-6 irabazi zuen Ibarrak. Unai Labakak eta Ion Ander Karrerak bina gol sartu zituzten, beste biak berriz, Silvak eta Pradosek. Jubenilek 1-0 irabazi zion Sestaori eta Kadeteek 5-3 Aramendi ikastolari.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KULTURA

ASIER IMAZ

Sua filmaren azken txanpan sartu dira Eneko Aritzaren Lagunak. Algorta eta Ibarraldeko gazte talde honek «bi edo hiru urte inguru» daramatza luze-metrai baten grabaketa eta prestaketarekin. «Aktoreei urte hauetan zehar itxura ere aldatu zaie, baina garrantzitsuena ez da estetika, denbora igaro arren, lanean jarraitzen dugula baiarik». Grabaketak amaitzeko dituzte EALkoek, baina oraindik muntaia gertatzen zaie, eta ez dakiten arren noizko bukatuko duten, «grabaketen amaiera ikusteak poz handia» ematen duela aitortu dute partaideek.

«Lehen grabaketa Legazpiko burdinolan izan zen. Hasieran xehetasun guztiak kontutan hartzen hasi ginen; klaketa, script lanak, argia zaintzen etabar baina denborarekin grabaketa amaitu ondoren ezer ez galtzarekin konformatzen gara». Behin eta berriz errepikatzen dute ez dela ezer profesionala eta euren aisialdi denboran egiten duten zerbait dela «istorio hau dena».

Larunbatean 11:00etan

Larunbat honetan Gorritin grabatuko dute «pelikulako eszenarik garrantzitsuenetako bat». Eszena honetan akzioa egongo dela esan digute eta horretarako soldaduak behar dituztela. Grabaketa basoan egongo dute, zaldi, gurdi, ezpata eta lantzak ez omen dira faltako. «Lotsarik gabe jendeari parte hartzeko deia egiten diogu. Extra bezala izango litzateke, soldaduz jantziak genituzke eta borrokatsoaren bat edo beste egin beharko dute, baina

‘Sua’ filmarako ‘soldaduak’ behar dituzte larunbatean

11:00etan geratu dira plazan eta Gorritin grabatuko duten eszenan parte hartzeko deialdia luzatu dute EALkoek



Algortan grabatutako eszena baterako osatu zuten miliziarren antzekoa beharko dute Gorritin. HITZA

dena kontrolpean izan ohi dugunez, ia ziur gaude ez dela zauriturik egongo». Parte hartu nahi duenak, EALen esanetan, «larunbatean 11:00etan plazan azaltzea besterik ez du, bazkaria eta jantziak guk emango ditugu». Nafarroako basoetan grabatuko duten eszena, arratsaldeko bostak edo seierak aldera amaituko omen

da. «Joaten dena ziur ez dela damutuko. Ardo eta sagardo pixka bat ere emago dugu, lotsa azkarrago galtzeko».

Igandean Pasaian batelaz

Igandean ere grabaketa egingo dute Eneko Aritzaren Lagunak taldekoek. Oraingo honetan Pasaian izango da. Horretara

rako garai bateko batelak lortzen dabilta eta lortuz gero goizten bertan egingo lukete grabaketa «eguraldia eta mareak» kontutan hartuta beti ere. Izan ere itsasoan sartuko dira oraingo honetan eta «eguraldi ona ez baldin badaukagu zaila izango da grabatzea». Zerrura begira pasa beharko dute astea, igandera arte behintzat.

EMAKUMEEN EGUNA ▶



Belauntza eta Gaztelun ere ospatu zuten Emakumeen Eguna

A.Imaz ▶ Gaztelun hogei emakume inguru elkartu ziren Kultur Batzordeak antolatutako afarira. 21:00etan elkartu ziren herriko elkartean eta gizonak prestatu zieten afarian, giro «ona» izan zuten goizaldera arte. Belauntzan ere jai giroan ospatu zuten emakumeek euren eguna. Munduko emakumeak ahaztu gabe, Izadiarentzako Emakumeen Gutuna zertan den eta Euskal Herriko Emakumeen Gutuna ere aztertut zituzten. «Ekitaldi xumea baina aberasgarria» izan omen zen bertakoa eta afari batekin, mahai inguruan agurtu zuten eguna. HITZA

LEITZA ▶ KULTURA

Leitza eta Goizuetako 18 ikasle, Satur Eleta Lehiaketako finalean

Finalerdian parte hartu zuten 81 ikasleetatik, 30 sailkatu dira Lekunberrin martxoaren 31n ospatuko den finalerako



Joanes Zabaleta aurreko urteko Satur Eleta Lehiaketan. HITZA

NAIARA GARZIA

Aralar Musika Eskolak urtero antolatzen duen Satur Eleta lehiaketaren kanporaketan parte hartu zuten 81 ikasleetatik, 30 izan dira Lekunberrin ospatuko den finalera pasatu direnak. Hauetatik 15 Leitza eta Goizuetakoak dira.

Martxoaren 3an Nafarroako hainbat herritan aldi berean ospatu zen Satur Lehiaketaren emaitzak ostiralean eman zituzten ezagutzera. Lau mailatan parte hartu zuten Aralar

Musika Eskolako ikasleek, hau da, bakarlarri, bikote, hirukote eta laukote bezala.

Bakarlarrien kategorian Miguel Andueza, Manex Moreno, Oinatz Mariezkurrena, Ane Intxausti, Lorea Zabaleta, Olatz Alduntzin eta Joanes Zabaleta pasatu dira finalera, pianoa, perkusioa, akordeoia, txistua eta trikitixaren laguntzarekin.

Bikoteei dagokienez, Miren Juantorenak eta Josune Guerrak ere sailkatzea lortu zuten, txistu eta pianoarekin. Hauekin batera Leire Sagastibeltza eta

Olatz Alduntzin finalean izan dira, trikitixarekin.

Bi hirukote bakarrak hartuko dute parte finalean: Araitz-Beteluko bat eta Leitza-Goizuetakoa bestea, Zuhaitz Beloki, Ander Perurena eta Maitane Villabonarekin. Hauek gitarra eta baxuaren laguntzarekin joko dute. Azkenik, sailkatu den laukote bakarra ere leitzar eta goizutarrez osatuta dago: Zuhaitz Beloki, Ander Perurena, Maitane Villabona eta Joanes Zabaleta gitarra, baxua eta perkusioarekin ariko dira.

LEITZA ▶ KIROLAK

2-1 galdu du Aurrerak Bidezarraren aurka

San Cristobalek lehenengo jarraitzen du, Aurrerarekiko 6 puntutako tartearrekin



Aurrerak Arkixkilen jokaturako beste partida bat. J. ASTIBIA

N. GARZIA

Igandean Arkixkilen jokaturiko norgehiagokaren ondoren, Bidezarra taldea izan da 3 puntuak eskuratu dituen, izan ere, leitzarrek ez zuten irabaztea lortu eta 2-1eko emaitzarekin amaitsu zuten.

Aurrerako arduradunek azaldu duten bezala, «lehenengo zatia txarra izan zen, ez genuen apenas aukerarik sortu eta atsedenaldira golik sartu gabe joan ginenean».

Leitzarrek izan ziren markagailua estreinatu zutenak, bigarren zatia hasi eta hamabost minutu pasa zirenean Iker Aizagirrek gola sartu baitzuten.

Aurkarieei dagokienez, lehenengo gola eskuarekin sartu zuten. «Gola eskuarekin sartu

arren, jokozainak ez zuen ikusi, ezta bertara hurbildu zen jendeak ere». Bigarren gola, berriz, penalti baten bitartez sartu zuten, eta amaiera alde-irabazteko, aurkariek estutzen saiatu ziren arren, ezin izan zuten markagailuaren emaitza aldatu. «Aukerak orokorrean guk izan genituen, baina azkenean haiek eraman dituzte 3 puntuak, beste munduko ezer egin gabe». Gainera, jende dezente joan zen partida ikustera. «Dende asko bildu zen Arkixkilen, baina ezin izan genuen irabazi».

Hurrengo partida Infanzonosen aurka jokatuko dute, Obanosen. «Gure aldetik dena jartzen ez badugu, edonork irabaz gaitzakeela ikusi dugu. «Lanean jarraitzea ezinbestekoa da».

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: ennio@ennio.com
www.ennio.com

Amezket. 90m²ko sartzeko moduan dagoen etxebizitza. 3 logela eta 2 bainugela.

Amezket. Berastegi, Tolosa eta Zizurkil. Berastegi, Tolosa, Zizurkil, hainbat etxe bifamiliari eta abixi, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Anoeta. Duela gutxi eraikuntzan

duplexa salgai. Garaje ibxia aukeran. Oso egoera onean.

Anoeta. Solkorre. 86 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Distribuzio ona.

Belautza. Etxe bifamiliari salgai. Rustiko erara jarria. Ezin hobeto. 500m²ko lorategiarekin.

Berrobi. Guztiz berritua. 90 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Guztiz kanpoaldera. Parkinarekin.

Irura. Labadero, 100 m². 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailuarekin.

Irura. Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Irura. Plaza. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin eta jantzia.

Ibarra. San Inazio. 3 logela,

egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.

Berokuntzarekin.
Ibarra. Plaza inguruan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela; dena kanpoaldera. 180.300 euro.

Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Villabona. Kale berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin. 324.600 euro.

Villabona. Larrea. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Altua igogailuarekin. Guztiz berritua eta jantzia. 288.500 euro.

Zizurkil. Etxe abixia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin hobeto dago. Orientazio paregabea du.

Tolosa. Sputniks. Duplexa salgai.

Berritua eta berokuntzarekin. Altua, igogailuarekin.

Tolosa. Agintari. Bizitzera sartzeko moduan. 2 logela. Kanpoaldera eta argitsua. Pisuaren prezioa: 186.315 euro.

Tolosa. Nafarroako ibilbidea. 3 logela eta 2 bainugelako pisua salgai.

Tolosa. Berritua. Berokuntza eta igogailuarekin.

Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. Prezioa: 228.384 euro.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Amarotz. 3 logela, trasteleku eta berokuntzarekin. Pisu ederra salgai. Berritua.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.

hobeak. Estreinatzeko. Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregi. 92 m². 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berritua eta estreinatzeko. Garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m². 125 m²ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

Tolosa. Kondeko aldapa. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailuarekin.

Tolosa. San Frantzisko. 50 m²ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajeekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 125 m²ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

Tolosa. SAM. Iskineko etxe abixia salgai. Porke eta guzti dauka.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko martxoaren 13a, asteartea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **12** hotzena **8**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantza argitzeko, harpidedun egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. Podologo zerbitzua izango da hilaren 26an 15:30ean. Ordua udaletxeko bulegoetan hartu behar da 21a baino lehen (943 683294).

Ibarra. Aste Misiolariaren barruan hitzaldi bat egongo da Kultur Etxean 20:00etan. Hizlaria zehazteke dago. Ostiralean 20:30ean izango den afari solidariorako txartelak, berriez, salgai daude ohiko tokietan 10 eurotan.

Tolosa. Saharar afaria Oargi elkartearen hilaren 23an: Kus-Kus-a (Tolosaldean bizi diren sahararrek prestatua) eta tea. Parte hartu nahi duenak 696 014786 telefonora deitu behar du.

Zizurkil. Korrikaren bertso bazkaria izango da hilaren 24an Ainhoa Agirreazaldegi eta Andoni Otamendirekin. Txartelak salgai Aurrera, Egari eta Goiko Zentro tabernetan 15 eurotan.

ERAKUSKETAK

Leitza. Pako Zufiurrek Naturak jasaten duen txikizioaren inguruko alegoria bat erakutsi nahi du Torrearen tabernan jarritako argazkietan. Hilaren 31ra arte ikusgai.

Tolosa. Ander Gillenearen *Herri bat erbesteren* argazki erakusketa Aranburu Jauregian.

Tolosa. Alberto Letamendiren *Migraciones: sonidos desiertos* pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Irurtzun. Mutiloa, A. San Martín, 5. 112.
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HitzaZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Neolitoa hobeto ezagutzen

TOLOSA ▶ Aste honetan Laskorain Ikastolako 5. mailako ikasleak Donostiako Gros auzoan, Sagueseko zabalgunean, La Caixak Neolitoari buruz jarri duen *Nomadak izatetik sedentarioak izatera* erakusketa ikusten izan dira. Bertako paneletan garai hartako bizilekuak, bizimoduak, lanak, tresnak, adierazpenak... ikusi dituzte. Irteera hau Ingurumen lantzen ari diren Historia gaiarekin erlazioan dago. HITZA

AGURRAK ▶

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

berriaren eskutik

PURRITX eta PORROTIX

txandalak




Neurria	2	4	6	8
Adina	0-2	2-4	4-6	6-8
Haurraren luzera cmetan	80-90	98-104	110-116	122-128

36€

Eskaria egiteko
AZKEN EGUNA
 martxoak 14
943 304 345
 edo harpidedunek
www.berria.info

OHARRA: biltegiak bukatu arteko eskaintza

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**